

## BERRIEMAILE GAZTEAK

Deskribapena: Pantaila hiru zatitan banatzen da, zati bakoitza korrespontsal edo berriemaile batekin, Iulen Guiresse (Maule), Ainhize Eletxigerra (Bilbo) eta, Haritz Garmendia (Azpeitia):

Kike (off ahotsa): “Hara! Baina zuek ez zarete gure berriemaileak! Nortzuk zaituztegu?”

Iulen: “Ni Iulen Maulekua.”

Ainhize: “Ni Ainhize naz ta Bilbokue na.”

Haritz: “Ni Haritz Azpeitiarra.”

Kike (off ahotsa): “Aizue, ba, bertan zaudetela, konparatuko al ditugu zuen euskalkiak?”

Iulen, Ainhize, Haritz: “Bai, bai.”

Kike (off ahotsa): “Nola esaten duzue, mm, oso ongi nago!”

Iulen: “Isi arri huntsa nük!”

Ainhize: “Ene! ni primeran na!”

Haritz: “Ba nik, earki natxiok ba!”

Kike (off ahotsa): “Eta larunbateko kontzertua izugarria izan zen?”

Iulen: “Neskeneguneko kontzertua isi arri huntsa zen!”

Ainhize: “Zapatuko kontzertue itzela izen zan.”

Haritz: “Ba, zapatuko kontzertua krixtona izan uan.”

Kike (off ahotsa): “Eta niri bost axola?”

Iulen: “Uatzidak!”

Ainhize: “Ez tozte ardure!”

Haritz: “Bost inporta ziek!”

Ainhize: “Ene! Ordun, e ligatu zelan esaten dozue zuek?”

Iulen: “Norbaitekin elki. Eta zuek?”

Haritz: “Guk besterik pe, ligau edo...”

Ainhize: “Nikin gatxi eukiko zenduen ordun.”

Iulen: “Eta haserretzen ziaztenean, ze erraiten dozue?”

Haritz: “Ba, “mekaguendios” edo holakoxen bat esaten diagu.”

Ainhize: “Nik eozar gauza, gehienetan e, ez ziot kehixa!”

Iulen: “Guk, hala jin zoia!”

Kike (off ahotsa): “E!”

Ainhize: “Zelan?”

Iulen: “Hala-jin-zoia!”

Haritz: “Eta neka-neka eginda dagola nola esateik?”

Ainhize: “Oso kantsaute na.”

Iulen: “Akitü inuk!”

Kike (off ahotsa): “Aizue!”

Iulen: “Zuek?”

Haritz: “Guk, pott inda natxiok, edo...”

Kike (off ahotsa): “Hi! Hi! Aizue! Hau gure saioa dela, e? Eta azken galderatxo bat, gazte munduan, batuaren aurkako giroa dagoela uste duzue? Zergatik?”

Iulen: “Bai nik ustez bai Xüberün, zeren eta xüberütarra galtzen ari baite eta batuak hartzen baitu, beiteio bere leküa, ordün nire ustez bai gazten artin eta xüberütarra galtzen ai baita juz kafe ta batuak hartze batuen, kontrako gaitz anitz entzuten da.”

Ainhize: “Guk ez, Bizkaixen dana errespetau itten da. Halan da be igul, e, euskalkixe erabiltzen ez dabenak ba lotsatu itten dio batueran berba itten baina euskalkixe erabiltzen dabenak nahiago dabe euskara entzun batue bada be, erdara entzutie baino.”

Haritz: “Nei, etzaittek iruitzen batun kontrako jarrera dagonik, iruitzen zait, testuinguru eta ezautzen arabera bat o bestia erabiltzen dekelat baina aurkako jarrerarik dagonik ez behintzat.”